Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko azaroaren 25a, asteazkena — 225 — Miércoles, a 25 de noviembre de 2026



## ORDIZIAKO UDALA

*Oiangualde 30 HEA Birpartzelatzeko Proiektuaren 1. Aldaketa behin betiko onartzea.*

Ordiziako alkateak, 2026ko azaroaren 9ko 2026/1959 Dekretuaren bidez, honako ebazpen hau eman zuen:

*Lehenengoa:* Behin betiko onartzea Oiangualde HEA 30 eremuko Birpartzelazio Proiektuaren Lehenengo Aldaketa, 2026ko urtarrilaren 29an Oiangualde HEA 30eko Kontzertazio Juntaren izenean Lierni Aburuza Labakak aurkeztua (A/26-01109) eta Fernando Carazo Amundarain arkitektoak eta Jokin Izagirre Zabala abokatuak sinatzen dutena.

*Bigarrena:* Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, iragarki oholean eta zabalpen handieneko egunkarietako batean argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea Jabetza Errregistroan inskribatzeko Hirigintza Kudeaketaren Araudiaren 3288/1978 Errege Dekretuaren 111. artikuluan jasotakoaren arabera.

*Hirugarrena:* Behin betiko onartu den akordio hau administrazio bidean irmo bilakatzen denean eta bertatik eratorritako obligazio ekonomikoak ordaintzen direnean, akordio hau egiaztatzen duen ziurtagiri administratiboa egingo da Jabetza Errregistroan inskribatzeko Hirigintza Kudeaketaren Araudiaren 3288/1978 Errege Dekretuaren 113. artikuluan eta Hirigintzako Egintzen Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzko Araudia onartzen duen 1093/1997 Errege Dekretuaren 6 eta 7 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Administrazio-bidea amaitzen duen egintza honen aurka administrazioarekiko auzierrekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzitarako Donostia-San Sebastiango epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzierrekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Ordizia, 2026ko azaroaren 18a.—Adur Ezenarro Agirre, alkatea. (7581)

## AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

*Aprobación definitiva de la 1.ª Modificación del Proyecto de Reparcelación del AIU 30 Oiangualde.*

El Alcalde de Ordizia, mediante Decreto 2026/1959, de fecha 9 de noviembre de 2026, adopto la siguiente resolución.

*Primero:* Aprobar definitivamente la Primera Modificación del Proyecto de Reparcelación del ámbito AIU 30 Oinagualde, presentado el 29 de enero de 2026 (A/26-01109) por Lierni Aburuza Labaka, en representación de la Junta de Concertación del AIU 30 Oiangualde, y firmado por el arquitecto Fernando Carazo Amundarain y el abogado Jokin Izagirre Zabala.

*Segundo:* Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, tablón de anuncios y en uno de los periódicos de mayor circulación y notificarla a todos los interesados de conformidad con lo establecido en el artículo 111 del Real Decreto 3288/1978, de Reglamento de Gestión Urbanística.

*Tercero:* Una vez firme en vía administrativa el presente acuerdo de aprobación definitiva y abonadas las obligaciones económicas derivadas de ella, procederá la expedición de la certificación administrativa acreditativa del referido acuerdo a los efectos de su inscripción en el Registro de la Propiedad, de conformidad con lo establecido en el artículo 113 del Real Decreto 3288/1978, de Reglamento de Gestión Urbanística y en los artículos 6 y 7 del Real Decreto 1093/1997, por el que se aprueba el Reglamento sobre inscripción en el Registro de la Propiedad de Actos de Naturaleza Urbanística.

Contra el presente acto, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

No obstante, con carácter previo al recurso contencioso-administrativo, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el órgano que dictó la resolución en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

Todo ello, sin perjuicio de presentar los actos o recursos que estime oportunos para la protección de sus derechos.

Ordizia, a 18 de noviembre de 2026.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre. (7581)

EK\CV GAO-I-2026-07581